# NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?

Hautesle errolda urriaren 24an argitaratuko da ikastegi guztietako iragarki taula guztietan eta eskegita egongo da azaroaren 24ra arte.

**Errolda** GAUR aplikazioan begiratu daiteke ere. Aplikazioan sartu ondoren, ezkerreko zutabean aukera berri bat dutela ikusiko dute "Errolda" izenekoa, eta horren azpian "Errektorea aukeratzeko hauteskundeak – Errolda" izeneko azpiatala (ikusi irudia). Azken aukera horren gainean klik eginda erroldako datuak ageriko dira.




**Irakasle eta ikertzaileek eta AZPkoek** Langileen Atarian lortuko dituzte datuak ere, ondoko aukeran klik eginda: “Nire datuak – Errektorea aukeratzeko hauteskundeetako errolda”.







Nahiz eta datuak web orrian kontsultatu ahal izan, erroldak ez dira inoiz ere hor agertuko.

## ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?

## INPUGNAZIO BAT AURKEZTU DAITEKE

## NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?

**Hauteskunde Batzorde Orokorreko buruari zuzenduta aurkeztu behar diot inpugnazio bat urriaren 27ko 10:00ak baino lehen. Inpugnazioa idatziz aurkeztu behar da Erregistro Orokorreko edozein bulegotan edo, kasuan kasu, web gunean azaltzen den formulario bidez.**

**Web orriko formularioaren aplikazioak ohar bat helaraziko dio erabiltzaileari formularioa zuzen bidali dela jakinaraziz. Horrelako oharrik jasotzen ez bada, Idazkaritza Nagusiarekin jarri beharko da harremanetan** errektorehauteskunde@ehu.eus **posta elektronikoaren bidez edo, bestela, inpugnazio bat aurkeztu beharko da erregistroko bulego batean.**

**Formularioa betetzeko klikatu hemen** FORMULARIOA